**ORGANOA:** Udalbatzar Txit Garaia
**ÓRGANO:** Excmo. Ayuntamiento Pleno

**BATZARRALDIA:** Ohiz kanpokoa
**SESIÓN:** Extraordinaria

**TOKIA:** Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoa
**LUGAR:** Salón de Plenos de la Casa Consistorial

**EGUNA:** 2024ko martxoak 12
**FECHA:** 12 de marzo de 2024

**HASIERA ORDUA:** 10:00
**HORA DE COMIENZO**: 10:00 h

**LEHENDAKARIA:** Eneko Goia Laso jauna, Donostiako Udal Txit Garaiko Alkatea.
**PRESIDE:** Don Eneko Goia Laso, Alcalde del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián.

**ETORRITAKOAK:** Alkateorde jaun-andreak:
**ASISTEN:** Los/las señores/as Tenientes de Alcalde:

Doña Nekane Arzallus Iturriza andrea
Doña M.ª Soledad Garmendia Beloqui andrea
Doña Ane Oyarbide Ochoa andrea
Don Jon Insausti Maisterrena jauna

Eta ondorengo zinegotzi jaun-andreak:
Y los/las señores/as concejales/as:

Doña M.ª Jesús Idoeta Madariaga andrea
Don Juan Ramón Viles Mitxelena jauna
Doña Olatz Yarza Garagorri andrea
Don Martin Ibabe Eceiza jauna
Don Kerman Orbegozo Uribe jauna
Doña Ana López Loiarte andrea
Don Juan Karlos Izagirre Hortelano jauna *(Olaia Duarte Lopez andrea eskuordeturik / Representando a D.ª Olaia Duarte López)*
Don Jabier Vitoria Roma jauna
Don Rikardo Burutaran Ferré jauna
Don Markel Ormazabal Gaztañaga jauna
Doña Itziar Iturri Arrazola

Doña Izar Hernando Ibero andrea
Don Iñaki Gabarain Gaztelumendi jauna
Don Carlos García Hernández jauna
Don Borja Corominas Fisas jauna
Don Jorge Mota Iglesias jauna
Doña Vanessa Vélez de Pablos andrea
Don Victor José Lasa Briz
Doña Arantza González García andrea

**ORDEZKATUA:** Ondorengo zinegotzi andrea:
**REPRESENTADA:** La señora concejala:
Doña Olaia Duarte López andrea

**EZ DIRA ETORRI:** Ondorengo zinegotzi andreak:
**NO ASISTEN:** Las señoras concejalas:
Doña Garbiñe Alkiza López de Samaniego andrea
Doña Cristina Lagé Manich andrea

**IDAZKARIA:** Nagore Sarasola Otermin andrea, Donostiako Udal Txit Garaiko Udalbatzarreko idazkari nagusia.
**SECRETARIA:** Doña Nagore Sarasola Otermin, Secretaria General del Pleno del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián.

---------------

| LABURPENA | Zk/ Nº | SUMARIO | Pág Orr. |
|---|---|---|---|
| **INFORMAZIO, SUSTAPEN ETA KONTROLA** | | **INFORMACIÓN, IMPULSO Y CONTROL** | |
| EH BILDU taldeak Donostiako saltoki txikien egoerari buruz aurkeztutako kontrol-mozioa. | Bakarra/ Único | Moción de Control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre la situación del pequeño comercio en nuestra ciudad. | 3 |

---------------

**DONOSTIAKO UDALBATZAR TXIT GARAIAREN OHIZ KANPOKO OSOKO BILKURA HASITAKOTZAT JOTZEN DA.**

**SE DECLARA ABIERTA LA SESIÓN PLENARIA EXTRAORDINARIA DEL EXCMO. AYUNTAMIENTO DE SAN SEBASTIÁN.**

---------------

**Bakarra.- EH BILDU taldeak Donostiako saltoki txikien egoerari buruz aurkeztutako kontrol-mozioa.**

“Eskaera, saltoki txikien egoerari buruzko Udalbatza Berezia egiteko

Eskaera hau sinatzen duten zinegotziek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 52. artikuluan xedatutakoaren babesean, hiriko saltoki txikien egoerari buruzko Udalbatza berezia egiteko eskatzen dute.

Hiriko saltoki txikien egoera kezka-iturri da biztanleriaren hein handi batentzat. Esaten da, eta bat gatoz baieztapen horrekin, saltoki txikiak bizia direla. Izan ere, saltoki txikiek auzo biziak sortzen laguntzen dute, inolako zalantzarik gabe gainera, hori begi bistakoa baita lo-auzoen kasuan. Bestalde, auzotarren segurtasun-pertzepzioa indartzen du, eta, aldi berean, hurbileko zerbitzua eskaintzen die bertako biztanleei. Hori are garrantzitsuagoa da adineko pertsonen kasuan.

Gai askok eta askotarikoek eragiten dute saltoki txikien desagerpenean. Hala, Alde Zaharrean, auzoan dauden ostalaritza- eta

**Único.-Moción de Control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre la situación del pequeño comercio en nuestra ciudad.**

“Petición de celebración de un Pleno Extraordinario sobre la situación del pequeño comercio.

Los concejales y las concejalas que suscriben la presente petición solicitan, al amparo de lo dispuesto en el artículo 52 del Reglamento Orgánico del Pleno, la celebración de un Pleno Extraordinario sobre la situación del pequeño comercio en la ciudad.

La situación del pequeño comercio, comercio de proximidad, en la ciudad es fuente de preocupación para un sector importante de la población. Se dice, y coincidimos con dicha aseveración, que el pequeño comercio es vida. En efecto, el pequeño comercio contribuye, de manera irrefutable, a conformar unos barrios vivos, en contraste con la conformación de barrios dormitorios. Por otra parte, refuerza la percepción de seguridad de sus moradores, al tiempo que ofrece un servicio de proximidad a la población residente, cuestión ésta que cobra más importancia para las personas de avanzada edad.

Son muchas y variadas las cuestiones que influyen en el languidecimiento del pequeño comercio. Así, en la Parte Vieja, a la

jatetxe-jardueren kontzentrazioaz gain, orain lokal asko jarduera horien biltegi gisa erabiltzen ari dira. Horrek guztiak Alde Zaharraren tematizazioa areagotzen du, batez ere helmuga turistiko gisa. Horrek auzoko merkataritza tradizionala auzotik kanporatzen du, begi bistakoa baita gero eta gertuko denda gutxiago daudela eta gero eta ostalaritza-establezimendu eta jatetxe gehiago daudela, baita auzotarren premiei erantzuten ez dieten denda gehiago ere.

concentración de actividades de hostelería y restauración existente en el barrio se une, ahora, la ocupación y utilización de nuevos locales como almacenes de las citadas actividades. Todo ello contribuye a incrementar la tematización de la Parte Vieja como destino eminentemente turístico, expulsando al comercio tradicional de barrio que ve como cada vez es menor el número de locales de proximidad y mayor el número de locales relacionados con la actividad de hostelería y restauración o con un comercio que no responde a las necesidades de los vecinas y vecinas del barrio.

Bestalde, auzoetan desoreka handiegia dago erreferentziazko elementuen edo trakzio-elementuen banaketan: gehienak «erdigunean» kontzentratuta daude, eta gure ustez, horrek eragin zuzena du auzoetatik trakzio-elementuak desagerraraztean edota hiri eremu horretan merkataritza-establezimenduak ireki edo irekita mantentzeko zailtasunak egotean. Trakzio-elementu posibleak banatzeko politika egokirik ez izateak, besteak beste, gero eta desertizazio komertzial handiagoa eragiten du, besteak beste, Roteta, Intxaurrondo Zaharra eta Martutene auzoetan.

Por otra parte, una excesiva desigualdad en la distribución de elementos de referencia o tractores en los diferentes barrios, concentrándolos en la “zona centro” contribuye, a nuestro juicio de manera irrefutable, a desposeer a los barrios de elementos tractores que contribuyan a fomentar la apertura y/o subsistencia de comercios en dichos ámbitos urbanos. La ausencia de una adecuada política de distribución de posibles elementos tractores más ponderada contribuye a la creciente desertización comercial en barrios como Roteta, Intxaurrondo Zaharra, Martutene,…

Era berean, beharrezkoa da auzoei merkataritza-ardatzak ematea, sinergiak sor daitezen, merkataritza-jarduerarako erakargarriagoak diren poloak sortzen laguntzeko.

Al mismo tiempo, se hace preciso dotar a los barrios de ejes comerciales que permitan que se generen sinergias que coadyuven a generar polos más atractivos para la actividad comercial.

Ildo horretan, babes publikoko etxebizitzen sustapenetan lokalak merkatu libreko prezioan saltzeak ere ez du egoera horretan batere laguntzen, askotan, lokal horiek tamalez hutsik geratzen baitira.

En este sentido y, en los barrios nuevos, tampoco ayuda que en las promociones de viviendas de protección pública los locales se vendan a precio de mercado libre, locales que en muchas ocasiones quedan lamentablemente vacíos.

Era berean, jarduera batzuk etxebizitzetan kokatuta daude, eta, ondorioz, etxebizitza

En el mismo sentido, algunas de las actividades están implantadas en viviendas, detrayendo con

horiek bizitegi-merkatutik kanpo geratzen dira, eta lokal asko, berriz, hutsik daude gure hirian.

Pertsonentzako Zerbitzu Batzordean horri buruzko interpelazio bat aurkeztu genion alkateari, eta Hirigintza Sostengagarriko zinegotzi ordezkariak oso partzialki erantzun zigun, Ekonomia, Tokiko Enplegu eta Ekologiako ordezkaria ez zegoelako.

Merkataritzak gure hirian bizi duen egoera larria, Donostiako hainbat auzotan merkataritza-jarduera gero eta gehiago desagertzea (horrek gero eta biztanleria zaharragoan dituen inplikazioekin), hurbileko merkataritza izenez ezagutzen dena desagertzea eta horrek auzoetan duen eragina direla-eta, eztabaida bat egin behar da merkataritza-ahultze prozesuari aurre egiteko neurrien inguruan.

Horregatik guztiagatik, ondorengo eskaera aurkezten dugu zinegotziok, Udalbatzaren Organo Araudiaren 52. artikuluan xedatutakoaren arabera, UDALBATZAREN BILKURA BEREZI BAT EGITEA ESKATZEN DUGU, DONOSTIAKO SALTOKI TXIKIEN EGOERAREN inguruko kontrol mozio hau eztabaidatzeko. 2024ko otsailaren 12an Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aurkeztutako interpelazioaren ondorioa da kontrol mozio hau.

KONTROL MOZIOA, DONOSTIAKO SALTOKI TXIKIEN EGOERARI BURUZKOA

1.- Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio, Gipuzkoa Merkatariak federazioarekin, merkatarien elkarteekin eta

ello las mismas del mercado residencial, mientras que la ciudad tiene un importante número de locales vacíos.

Interpelado al respecto el alcalde en la Comisión de Servicios a las Personas la delegada de Urbanismo Sostenible nos contestó de manera muy parcial, ante la ausencia de la delegada de Economía, Empleo Local y Ecología.

La grave situación que afronta el comercio en nuestra ciudad, la creciente desaparición de actividad comercial en distintos barrios de Donostia (con las implicaciones que tiene ello sobre una población cada vez más envejecida), la desaparición del conocido como comercio de proximidad y la influencia de ello sobre los barrios exige la necesidad de realizar un debate sobre algunas de las medidas que se pueden implementar para tratar de hacer frente al proceso de languidecimiento comercial.

Por todo ello, los concejales y las concejalas que presentamos la siguiente petición, al amparo de lo establecido en el artículo 52 del Reglamento Orgánico de Pleno, SOLICITAMOS LA CELEBRACIÓN DE UN PLENO EXTRAORDINARIO que debata la presente moción de control SOBRE LA SITUACIÓN DEL PEQUEÑO COMERCIO EN NUESTRA CIUDAD. La moción de control es consecuencia de la interpelación sustanciada en la Comisión de Servicios a las Personas el pasado 12 de febrero de 2024.

MOCIÓN DE CONTROL SOBRE LA SITUACIÓN DEL PEQUEÑO COMERCIO EN NUESTRA CIUDAD

1.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al equipo de gobierno municipal a que, en colaboración con la Federación Mercantil y

udal-taldeekin lankidetzan, Amara eta Amara Berri auzoetan merkataritza-ardatzak ezartzeko proposamen pilotu bat diseina dezala, era horretan, bertako merkataritza suspertzeko neurri eraginkorrak aplikatzeko.

asociaciones de comerciantes y los grupos municipales, diseñe una propuesta piloto de eje o ejes comerciales en los barrios de Amara y Amara Berri de forma que sirva para implementar medidas efectivas que busquen la reactivación comercial de los mismos.

2.- Era berean, Udal Gobernuari eskatzen zaio Alde Zaharreko Merkataritza Birgaitzeko Plan bat egitea eska dezala; hartu beharreko neurriak proposatuko ditu plan horrek, era horretan, auzo horretan hurbileko merkataritzaren galera itzulezina ekiditeko.

2.- Asimismo, se insta al Gobierno Municipal a que encargue la realización de un Plan de Rehabilitación Comercial de la Parte Vieja; dicho plan propondrá las medidas a adoptar para evitar que la destrucción del comercio de proximidad en dicho ámbito se retorne en irreversible.

3.- Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio hiriko merkataritzaren egoerari buruzko azterlan bat enkargatu dezala, Gipuzkoa Merkatariak federazioarekin eta hirian ezarritako merkatarien elkarteen laguntzarekin. Azterlan horretan, besteak beste, auzoei trakzio-elementuak emateko premia aztertuko da, auzoetan merkataritza-erakargarritasun handiagoa sustatzen laguntzeko.

3.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al Gobierno Municipal a encargar un estudio, con la colaboración de la Federación Mercantil y asociaciones de comerciantes implantadas en la ciudad, sobre la situación del comercio en la ciudad; en dicho estudio se analizará, entre otras cuestiones, la necesidad de dotar a los barrios de elementos tractores que contribuyan a incentivar una mayor vis comercial de los mismos.

4.- Era berean, logela-auzoak sor ez daitezen, Udalaren edo Donostiako Etxegintzaren jabetzako merkataritza-lokalak errenta mugatuko baldintzetan merkaturatzeko eta sustatzeko formulak aztertuko dira, eta lokal horiek auzoko bizimodua sortzen lagunduko duten jarduerak ezartzeko erabiltzea sustatuko da eta, halaber, horretarako eskatzen diren baldintzak aztertuko dira.

4.- Del mismo modo, al objeto de evitar la generación de barrios dormitorios, se estudiarán fórmulas de comercialización y promoción de locales comerciales de propiedad municipal o de Donostiako Etxegintza en condiciones de renta limitada, promocionando con ello su uso para la implantación de actividades que contribuyan a generar vida de barrio; a tal fin, se estudiarán igualmente los requisitos exigidos para ello.

5.- Era berean, Udal Gobernuari eskatzen zaio sustapen-formulak azter ditzala, gaur egun bizitegi-erabilerarako egokiak diren solairuetan ezarritako merkataritza-jarduerak lokaletara lekualda daitezen, horrela, lokal hutsak okupatu daitezen, eta, aldi berean, egun erabiltzen dituzten etxebizitzak bizitegi-erabilerarako libre geratzeko aukera egon dadin.

5.- Igualmente se insta al Gobierno Municipal a que estudie posibles fórmulas de incentivación para que actividades implantadas actualmente en plantas aptas para uso residencial pueden trasladarse a locales, contribuyendo con ello a ocupar locales vacíos al tiempo que se posibilita la liberación de los actuales para un uso residencial.

Donostia, 2024ko otsailaren 26a

Juan Carlos Izagirre Hortelano
EH Bilduko bozeramailea

Olaia Duarte López
EH Bilduko zinegotzia

Javier Vitoria Roma
EH Bilduko zinegotzia

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
EH Bilduko zinegotzia

Ricardo Burutaran Ferré
EH Bilduko zinegotzia

Markel Ormazabal Gaztañaga
EH Bilduko zinegotzia

tziar Iturri Arrazola
EH Bilduko zinegotzia

Izar Hernando Ibero
EH Bilduko zinegotzia".

En Donostia, a 26 de febrero de 2024

Juan Carlos Izagirre Hortelano
Portavoz de EH Bildu

Olaia Duarte López
Concejala de EH Bildu

Javier Vitoria Roma
Concejal de EH Bildu

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
Concejala de EH Bildu

Ricardo Burutaran Ferré
Concejal de EH Bildu

Markel Ormazabal Gaztañaga
Concejal de EH Bildu

Itziar Iturri Arrazola
Concejala de EH Bildu

Izar Hernando Ibero
Concejala de EH Bildu".

Eztabaida hasita, Juan Karlos Izagirre Hortelano jaunak, Victor José Lasa Briz jaunak, Borja Corominas Fisas jaunak, M.ª Soledad Garmendia Beloqui andreak eta Jon Insausti Maisterrena jaunak, parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D. Juan Karlos Izagirre Hortelano, D. Victor José Lasa Briz, D. Borja Corominas Fisas, D.ª M.ª Soledad Garmendia Beloqui y D. Jon Insausti Maisterrena en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 12 – (7) EH BILDU, (3) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 12 – (7) EH BILDU, (3) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**

**AURKAKO BOTOAK: 13 – (9) EAJ/PNV, (4) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**VOTOS EN CONTRA: 13 – (9) EAJ/PNV, (4) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**ETA BILERAK BESTE XEDERIK EZ DUENEZ, LEHENDAKARITZAK, AKTAKO LEHEN ORRIAREN BURUAN ADIERAZITAKO EGUNEKO GOIZEKO HAMAIKETAN AMAITUTZAT JO DU BILERA. ETA NIK, IDAZKARI NAIZEN ALDETIK, BILERAN ESANDAKO GUZTIAREN FEDE EMATEN DUT:**

**Y NO SIENDO OTRO EL OBJETO DE LA SESIÓN, LA PRESIDENCIA LA DECLARA TERMINADA, LEVANTÁNDOSE EL ACTO, SIENDO LAS ONCE HORAS DE LA FECHA EXPRESADA EN EL ENCABEZAMIENTO DE LA PRESENTE ACTA, DE TODO LO CUAL, YO, LA SECRETARIA, DOY FE:**

**LEHENDAKARIA: / EL PRESIDENTE:**

**IDAZKARIA: / LA SECRETARIA:**